

Banaketa-kanalak

Gure produktua bezeroengana irits dadin, bi kanal ezberdin sortzea erabaki dugu:

Alde batetik, gure produktua merkataritza elektronikoaren bidez salduko dugu, hau da, webgune baten bidez salduko ditugu. Gure webgunea ezagutarazteko, YouTube-ko kanala sortuko dugu, eta bertan, gure produktua erakutsiko dugu. Gainera, metodo honen bidez gure bezero potentzialak modu errazean jar daitezke gurekin harremanetan.

Bestalde, eta gure ustez hau da kanal garrantzitsuena, ospitaleei gure produktua eskaintzea pentsatu dugu, diru-truke. Gure helburua Espainiako osasun sistema publikoaz baliatzea da, oso erraza izango litzatekeelako gure produktua Espainia osoan zehar zabaltzeko. Honekin batera, eskua elbarrituekin lan egiten duten enpresei eskainiko diegu, hala nola, Aspace. Horrela, enpresek eta osasun sistemak bezeroei produktua erakutsiko diote, eta, aldaketa espezifikorik beharko balitz, guregana bideratuko lukete.

Bi kanal hauek ondo aterako balira, gure produktua Espainia osoan zehar ezaguna izango litzatekeela uste dugu.